



**ERREZILGO UNIBERTSITATEKO  
UDALA**

**2.014KO OTSAILAK 6**

**OHIKO PLENOA**

Bertaratuak:

**ALKATEA  
ZINEGOTZIAK:  
Bertaratuak:**

Maria Jesus Salsamendi Astiazaran

Jokin Uzkudun Goenaga.  
Harkaitz Arruti Eizagirre.  
Oihane Arzalluz Beobide.  
Leire Beristain Mendizabal.  
Iñaki Irulegi Apalantza.  
Luis Berrondo Lanceta.

Bertaratu gabeak:

Iñor ez.

IDAZKARIA:

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Errezilgo Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta hamalauko otsailaren seiko hogeita bat ordu eta bost minutu izanik, Errezilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

**LEHENENGO PUNTUA:  
2013KO ABENDUAREN 5 ETA 26KO AKTEN ONARPENAK, BIDEZKOA  
BADA.**

Idazkariak 2013ko abenduaren 5 eta 26ko aktak onartzen diren galdetzen du eta aho batez onartzen da.

**BIGARREN PUNTUA:  
ERNIOZALEAK KULTUR ELKARTEA ETA ERREZILGO UDALAREN  
ARTEKO HITZARMENAREN ONESPENA, HALA BADA, ERNIO INGURUAN  
DAUDEN ZORTZI HERRIEN ARTEAN BI URTEZ BEHIN EGITEN DEN  
IBILALDIAREN ANTOLAKUNTZARAKO.**

Erniozaleak Kultur Elkartek Aiako, Albizturgo, Alkizako, Asteasuko, Bidegoiango, Errezilgo, Hernialdeko eta Larraulko Udalek Erniozaleak Kultur



## ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA

Elkarteak Ernio inguruan dauden zortzi herrien artean bi urtez behin egiten den antolakuntzarako aurkezturiko hitzarmena aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, Batzordearen diktamena kontuan izan ondoren zera erabaki du:

**LEHENENA:** Ernio mendiko gurutzearen 50. urteurrena zela eta, Erniozale Kultur Elkarteak sortu zen. Elkarte honek, Ernio inguruan dauden zortzi herrien arteko ibilaldia antolatu du bi urtetik behin.

**BIGARRENA:** Ibilaldi honen sorrera 1999 urtean izan zen Asteasun lehenengo ibilaldiarekin. Bi urtetik behin Alkiza, Albiztur, Aia, Errezil, Bidegoian, Hernialde herrietan antolatu ondoren 2012. urtean Larraulgo herrian bukatu zen ibilbideen lehenengo zikloa.

**HIRUGARRENA:** 2014. urtean bigarren zikloarekin hasi nahi da zortzi herrien arteko ibilbidea bi urtetik behin antolatuz.

Hori dela kontuan hartuz, agerlariek honako hau hitzartzen dute:

**LEHENENA:** Ibilbide hau, Ernio inguruan dauden 8 herri hauetan burutuko da: Aia, Albiztur, Alkiza, Asteasu, Bidegoian, Errezil, Hernialde eta Larraul.

**BIGARRENA:** Udalek 4000 euro jartzea. Kopuruaren erdia denak berdin eta beste erdia herri bakoitzaren biztanleen arabera. Antolaketak, publizidadeak... sortzen dituen gastuak kitatzeko.

**HIRUGARRENA:** Erniozale Kultur Elkarteak, ibilaldiko partaideei inskripzio kuota bat jarriko die ibilaldi guztiko jan eta edariaren ordain truke.

**LAUGARRENA:** Ibilaldia antolatu behar den urtean, urte horren hasieran, hitzarmen honen babesean, Erniozale Kultur Elkarteak eskaera aurrekontuarekin batera aurkeztuko du udal guztietan, hauek, aztertu eta egoki iruditzen bazaie, ordainketa egingo dute otsailaren bukaerarako.

**BOSTGARRENA:** Ibilaldiaren bukatu ondoren, urte horretako urrirako Udaletxe guztietan kontuen kitapena aurkeztuko da.

**SEIGARRENA:** Hitzarmen hau, 2014-2028 urteen artean, egingo diren, bi urteko maiztasunarekin, ibilaldiak bukatu arteko balioa izango du.

**ZAZPIGARRENA:** Urte batean arazo ezberdinengatik ibilbidearen antolaketak bertan behera geratuko balitz, hitzarmen honek luzapena izango luke zortzi herrietako ibilaldien antolaketak bukatu arte.

**ZORTZIGARRENA:** Hitzarmen hau sinatzen duten 8 herriek, Ernio azpian edo inguruan dauden PR ibilbideen mantenua egiten badute, Erniozale Kultur Elkarteak,



## ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA

hauen ikuskaritza lanak egingo dituzte eta gabeziak bilatu ezkerro hauek konpontzeko laguntza eskeiniko dute.

Iñaki Irulegik dio aipaturiko kantitatearekin kultura dirulaguntzetatik igo egiten garela.

### **HIRUGARREN PUNTUA: ZENBAIT MOZIOEN ONARPENA.**

1.- 2014ko urtarrilaren 22an Auzitegi Nazionalaren aginduz, 8 euskal herritar atxilotu dituztela eta ondoren espetxeratu izan direla eta, BILDUren izenean Maria Jesus Salsamendi Astiazaran andereak aurkezturiko mozioak literalki zera dio:

“1.- Errezilgo Udalak uste du era horretako jarduerak oztopo bat direla gure herriak gaur egun bizi duen testuinguru politikoan, bai eta bakea eta bizikidetzaren demokratikoa ezartzeko prozesua irmotuko delako itxaropen zabalduan ere.

2.- Errezilgo Udalak eskatzen du errespetu daitezela euskal herritar guztien giza eskubideak eta eskubide zibil eta politikoak.

3.- Errezilgo Udalak eskatzen du berehala eman dadila prozedura horren gaineko ebazpen judiziala. Modu horretara, ez dira urratuko orain atxilotuta dauden pertsona horien eskubideak.

4.- Errezilgo Udalak euskal gizarte osoari eskatzen dio jarrai dezala lanean herritar horien eskubide guztien alde eta jarrai dezala eskubide horiek aldarrikatzen, areago testuinguru politiko honetan, denok egin behar baitugu bakea eraikitzeko eta irmotzeko”.

Bozketa egin eta Batzordearen diktamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Arkaitz Arruti Eizagirre, Oihane Arzalluz Beobide, Iñaki Irulegi Apalantza, Luis Berrondo Lanceta eta Leire Beristain Mendizabal.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, BILDUren izenean Maria Jesus Salsamendi Astiazaran andereak aurkezturiko mozioa aho batez onartzen da.

2.- Emakumeen autonomiaren, bizitzaren eta gorputzaren aurkako erasoaren aurrean BILDUren izenean Maria Jesus Salsamendi Astiazaran andereak aurkezturiko mozioak literalki zera dio:



## ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA

“ 1.- PP-k aurkeztutako “ Kontzebituaren eta emakume haurdunaren eskubideen babeserako” legearen aurreproiektua gaitzesten du, atzerakoia delako eta emakumeen eskubideak urratzen dituelako.

2.- Udal honek emakumeen autonomiarekiko eta, zehazki, ugalketarako autonomiarekiko duten eskubidearekiko konpromisoa berresten du. Haurdunaldia eteteko erabakiak emakumeen borondatea izan behar du ardatz eta baldintza nagusi.

3.- Eusko Jaurlaritzari/ Nafarroako Gobernuari eskatzen dio emakumeek haien gorputzarekiko eta ugalketarekiko erabakiak askatasunez hartu eta gauzatu ahal izateko lege-babesa, osasun-babesa eta babes soziala berma dezala.

4.- Udal honek, Haurdunaldiaren Borondatezko Eteteak osasun sistema publikoaren baitan egitearen aldeko hautua egiten du, pertsonal sanitarioaren kontzientzia objektua arautuz eta aipatutako zentro publikoetan emakumeek Haurdunaldiaren Borondatezko Eteterako duten eskubidea gauzatu ahal izateko beharrezkoak dituen talde profesionalak daudela bermatuz.

5.- Udal honek, martxoaren 3ko 2/2010 legearen baitan egiten den edozein aldaketa, emakumeentzat oinarritzkoak eta berezkoak diren eskubideak zabaltzera bideratu dadila eskatzen du, emakumeek ama izan ala ez erabakitzeko ahalmena izan dezaten.

6.- Erreforma hori erantzun bateratu bat emateko mugimendu feminista eta emakumeen mugimenduak egindako lan itzelari errekonozimendua egiten dio, eta Udal honek bat egiten du eskubide hau babesteko mobilizazioekin.

7.- Herritarrei dei egiten diegu emakumeen autonomiaren alde eta, zehazki, oinarritzko eskubide honen alde egin dezaten eta Espainiako gobernuaren kontrarreformaren aurkako mobilizazioetan parte har dezaten.

8.- Honako Plenoko akordioa Eusko Jaurlaritzari/Nafarroako Gobernuari, Espainiar Estatuko Gobernuari eta Justizia Ministro den Alberto Ruiz Gallardoni helaraziko zaie.

Bozketa egin eta Batzordearen diktamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Arkaitz Arruti Eizagirre, Oihane Arzalluz Beobide, Iñaki Irulegi Apalantza, Luis Berrondo Lanceta eta Leire Beristain Mendizabal.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, BILDUren izenean Maria Jesus Salsamendi Astiazaran andereak aurkezturiko mozioa aho batez onartzen da.



**ERREZILGO UNIBERTSITATEKO  
UDALA**

**LAUGARREN PUNTUA:  
ORDAINAGIRIEN ONARPENA.**

Ez dago ordainagiririk.

**BOSTGARREN PUNTUA:  
ALKATETZA BERRIAK ETA EBAZPENAK.**

Alkateak azkeneko Plenotik gaurko data arte emandako Dekretuen zerrenda jakinarazten du, hau da, 2013ko abenduaren 2tik (177/2013 Alkatetza Ebazpena) 2014ko urtarrilaren 27ra (12/2014 Alkatetza Ebazpena) bitarteko Dekretuak.

**SEIGARREN PUNTUA:  
GALDERAK ETA ERREGUAK.**

1.- Iñaki Irulegik galdetzen du ea Leire Zubeldia Errezilen erroldatuta dagoen. Idazkariak erantzuten dio ezetz, baina nahiz eta herri baten erroldatuta ez egon, kotxea posible dela erroldatuta ez zauden beste herri ezberdin batean egotea.

2.- Luis Berrondok komentatzen du kotxeak Udaletxe aurrean berdin berdin aparkatzen dituztela. Gai honen inguruan hitzegin ondoren, otsaileko bandoan honen inguruko beste ohar bat banatzea erabaki da.

3.- Maria Jesusek aipatzen du Elurrekoekin ez dutela terrenorik salduko zabor birziklapena egiteko.

4.- Oihane Arzalluzek aipatzen du uholdeen kalteen inguruan, Gipuzkoako Foru Aldundiak %38ko dirulaguntza emango digutela esan digutela.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko hogeita bat ordu eta berrogei minutu direnean, Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut

